

2016ko URRIAREN 20ko UDALBATZARRA
PLENO DE 20 DE OCTUBRE DE 2016

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

M^a ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

KONTUHARTZAILEA / INTERVENTORA: M^a DOLORES OYARZABAL ZUBIETA. (4. puntu arte barne/ hasta el 4º punto incluido).

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2016-10-20
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 20-10-2016
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2016.eko irailaren 15ean egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 15 de septiembre de 2016, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- 2017.ko UDAL ZERGEN KARGA/TASAK HASIERA BATEZ ONESTEA.

2.- APROBACIÓN INICIAL TIPOS IMPOSITIVOS IMPUESTOS MUNICIPALES AÑO 2017.

Alkateak datorren urterako egin behar diren

El Alcalde explica las modificaciones que se

aldaketak azaldu ditu (ICIO eta plusbaliak) eta Idazkariak prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:

plantéan para el año que viene (ICIO y plusvalías) y la Secretaria explica el procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Izanik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikulua araberako Udalen zergen karga-tasak aldatzea ondukoak izan behar den urtea hasi baino lehen onetsi behar dela.

Siendo que según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 sobre Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobados antes del inicio del año en que hayan de surtir efecto.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Lurraldeko kontribuzioari % 0,28ko karga-tasa ezartzea aurtengo berdina.

1) Establecer el tipo impositivo del 0,28 % a la Contribución Territorial, el mismo que en el año en curso.

2) Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zerga:

2) Impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana:

Gehikuntza erreala zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikulua laukian agertzen diren gutxienezko urteko ehunekoak aplikatzea. Karga-tasa %18a izanen da.

Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los porcentajes anuales mínimos del cuadro del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales. El tipo impositivo será el 18 %.

3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 5eko karga-tasa ezartzea.

3) Establecer el tipo impositivo del 5 % al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

4) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3 gutxienezko indizea aplikatzea, aurtengo indize berdina.

4) Impuesto de Actividades Económicas: Aplicar el índice mínimo de 1,3, igual que el del año en curso.

5) Karga-tasa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertze-ko aukera izan dezaten.

5) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

6) Erreklamaziorik, aitzakiarik edota oharrik egiten ez bada, aipatu denbora pasatu ondotik, aipatu karga-tasak behin betikoz onetsi direla ulertuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin

6) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se

batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

3.- TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK ALDATZEKO HASIERA BATEZ ONESTEA, 2017.ko EKITALDIA.

3.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN TARIFAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, EJERCICIO 2017.-

Alkateak honetan tarifak dauden bezala utziko direla aipatu du. Beraz, honako erabakia hartu dute:

El Alcalde comenta que no se van a modificar las tarifas. Por lo que, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2017.ko Tasak eta Prezio Publikoen tarifak aldatzeko espedientea.

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2017.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2017. ekitaldirako indarrean diren prezio publiko eta Tasen tarifak mantentzea, espedientean adierazten den bezala.

1) Mantener las mismas tarifas de las Tasas y Precios Públicos para el ejercicio de 2017, según constan en el expediente.

4.- 2017. urteko AURREKONTU OROKORRA ONESTEA.

4.- APROBACIÓN PRESUPUESTO GENERAL 2017.

Kontu-hartzaileak aurrekontuaren laburpena, Aurrekontu-egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzko Lege Organikoak xedatzen dituen mugak eta 234/2015 Foru Dekretu berria azaldu ditu.

La Interventora explica el resumen del presupuesto así como los límites establecidos por la Ley Orgánica 2/2012 de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y el nuevo Decreto Foral 234/2012.

Alkateak aurkeztutako aurrekontuari buruz honako azalpen batzuk egin ditu:

El Alcalde realiza las siguientes explicaciones sobre el presupuesto presentado:

- **5 milioi euro inguruko aurrekontua izanen dugu 2017. urtean.**

SARRERAK

Sarreren atalean aipatu aurten 2017-2019 hirurteko plana martxan jarriko dela eta horri esker azpiegiturak, hau da ur hornidura, saneamentua eta zola berritze lanak egiteko dirulaguntzak izanen direla.

Hau baliatuz Agerra auzoko ur sarea berritu nahi dugu, ur hornidura eta saneamentuko azpiegiturak berrituz eta euri urak eta ur zikinak bereiziz. Herriko bertze bide eta kaleren bat moldatzea ere aurre ikusten da.

Aipatu baita ere sarreretan 2009-2012 planetik egin beharra den Lesaka-Bera ur hornidura proiektua egiteko 1.300.000 euro inguruko dirulaguntza mantentzen dela eta obra urte hasieran egin nahi genukeela.

2017an ezohiko bertze sarrera batzuek izanen dire, alde batetik Komiziarreko pinadegiaren salmentarekin 180.000 euro inguru lortzea aurre ikusten da eta Uxane etxearen salmentarekin 145.000.

Diru sarrera hauei esker, krediturik eskatu gabe egin ahal izanen ditugu 2017ko inbertsioak, udalaren zorpetze maila jausten segituz.

IRTEERAK

Irteeretan berriz Lesaka-Bera proiektua izanen da inbertsiorik haundiena 1.500.000 euro ingururekin. Mendiko lanetarako, landaketak, garbiketak, pisten moldaketa, etab. 130.000 inguru, Agerra auzoko sareak berritzeko 80.000, kaleak moldatzeko 35.000.

Aurtengo ezhoiko diru sarrerak baliatuz 95.000 euro aurre ikusi dira erosketa eta expropiazioetarako.

Garapen jasagarriaren bidean 2 inbertsio garrantzitsu egitea aurre ikusten da:

1-Biomasa sarea ikastolara luzatzea 40.000 euro. Biomasa plantan 2 galdara daude, bat 500kw-koa eta bertzea 250kw-koa, bi galdara hauek gaur egun potentzia soberan daukate hornitzen dituzten eraikuntzak berotzeko. Hau dela eta sarea luzatzeak instalazio hau hobeki aprobetxatzea ekarriko du.

2- Led argiak jartzea. 30.000 euro. Ikusirik aurten Altzate kalean egindako aldaketak emandako emaitza onak, %70 inguruko aurrezpena, bide honetan segitzea aurre ikusten da argi puntu gehiago aldatuz.

Udalak etxebizitzak berritu eta alokairuan jartzeko 20.000 euro aurre ikusi dira.

Bakegintza eta bizikidetzari loturik Oroitharri ekimena ere aipatu behar, herri antzerkia, testigantzen bilketa...oroimen historikoari lotutako proiektu honetarako 15.000 euro bideratuko dira.

Bertze lanen artean aipatu, udaletxeko artxiboa sotoan jartzea 2. solairua eta ganbara libratzeko eta lixutegiren bat moldatzea ere aurre ikusten direla.

German Castillo zinegotziak galdetu du Bortziritako Euskera Mankomunitatearen gastuei buruz eta erantzun diote hori dena Mankomunitatearen aurrekontuan zehaztua agertzen dela.

El concejal Germán Castillo pregunta sobre los gastos de la Mancomunidad de Euskera y le contestan que eso está todo detallado en el presupuesto de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

Horren ondotik, Idazkariak prozedura azaldu du eta, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:

Seguidamente, la Secretaria explica el procedimiento y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2017.eko ekitaldirako Aurrekontu

Visto el proyecto del Presupuesto General para

Orokorren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartu baitira.

Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.

ERABAKI DUTE:

- 1) **2017.eko Aurrekontu Orokorra, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.**
- 2) **Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**
- 3) **Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioz ez balego, Aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**

Kontu-hartzaileak alde egin du aurreko puntua bukatzerakoan.

5.- 2017. urteko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-

Idazkariak aipatu ditu eginiko aldaketak:

Alde batetik, NAPIk bere egunean eginiko azterketatik zenbat lanpostutan jarritako lanpostu-osagarriaren bigarren heren bat (orain arte aplikatu gabe zegoena) aplikatuko dute.

Beste aldetik, kultur koordinatzailearen

el ejercicio de 2017, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

SE ACUERDA:

- 1) Aprobar inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2017, antes indicado.
- 2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.
- 3) Indicar que, si no se formularan reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública señalado en el punto anterior.

La interventora se ausenta al finalizar el punto anterior.

5.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2017.-

La Secretaria indica las modificaciones realizadas:

De un lado, se aplica un segundo tercio del complemento de puesto de trabajo establecido a varios puestos de trabajo en el estudio realizado en su día por el INAP (no aplicado hasta ahora).

De otro, se quita el complemento de dirección

lanpostuari zuzendaritza-osagarria kenduko dute, Udalaren ustez bere ardurapean langilerik ez duelako eta mendizainarenari jardunaldia luzatzeko osagarria kendu ere orain jardunaldi normala egiten duelako.

Horrez gain, prozedura ere azaldu du idazkariak eta, horren ondotik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 2017. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espedientea.

Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:

"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:

"Nafarroako Administrazio Publikoek, e-bazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."

2012ko abenduaren 11n Osoko bilkuran Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko txostena, Bortzirietako Toki Entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruzkoa, 2012ko abuztuaren 27koa, onartu zuen Udalak.

Hori dela eta, aipatu txostena eta horretan adierazi diren arrazoiekin bat etorritz.

al puesto de coordinador de cultura por estimar el Ayuntamiento que no tiene personal a su cargo y el de prolongación de jornada al puesto de guardamontes por realizar en la actualidad jornada normal.

Además de lo anterior, la Secretaria explica, también, el procedimiento, tras lo cual, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2017.

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconce sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 11 de diciembre de 2012 aprobó el informe sobre perfil lingüístico a establecer en los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas de las Entidades Locales de Bortzirietak realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortzirietak de fecha 27 de agosto de 2012.

Por lo que, teniendo en cuenta el citado informe y según las razones en él aducidas.

Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2017. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2017.

2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, finkoa edo aldi batekoa, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea, Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko txostenean, lehen aipatutakoan, eta erabaki hone-tan adierazten den jakite mailaren arabera.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de personal contratado, fijo o temporal, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el informe realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak, antes reseñado, y en este acuerdo.

3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarri Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioz ez balego, plantilla behin-betikoz onestizat hartuko dela ohartaraztea.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

6.- 15. POLIGONOKO 129. eta UDAL LUR-ZATIETAN KATASTROA ALDATZEA.

6.- MODIFICACIÓN CATASTRAL PARCELAS MUNICIPALES 1 y 129, POLÍGONO 15.

Idazkariak espedientea azaldu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Tras explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Catastro-Estudio 5 s.l. enpresak eginiko txostena, 2016ko abuztuaren 22koa, non ondoko lur-zati horietan akats batzuk detektatu direla dioen:

Visto informe emitido por la empresa Catastro-Estudio 5 s.l., de fecha 22 de agosto de 2016, en el que señala que se han detectado diversos errores en las siguientes parcelas:

- **15. poligonoko 1. lur-zatiaren titularitatea herri lurra bezala agertzen da baino udal ondare-ondasuna denez Udalaren izenean egon beharko zen.**

- **15. poligonoko 129. lur-zatian, titularitatea ongi dago, Udalaren izenean, baino erregistroko deskripzioari jarraikiz lehen aipatu 1. lur-zatiarekin lur-zati bakarra osatu beharko zen.**

- **Gaur egun, aipatu lur-zati honetako katastro-mugak ez datoz bat dauden muga fisikoeekin, beraz, katastroko muga horiek aldatu behar dira eta horrek ondoko 15. poligono hortako 2. lur-zatiari ere ukituko dio.**

Horrez gain ere, adierazi du aipatu 15. poligonoko 1. lur-zatiak Herri lurraren titularitatea duenez Nafarroako Gobernuaren Herri-lurraren Atalari txostena eskatu behar zaio.

Herri-lurraren Atalak 2016ko irailaren 19an eginiko txostenean adierazi du bere aldetik ez dagoela inolako arazorik Udalak eskatu duen katastroaren aldaketa egiteko.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 25.3 artikuluari jarraikiz,

ERABAKI DUTE:

1) Catastro-Estudio 5 s.l. enpresak eginiko txostenean, 2016ko abuztuaren 22koan aipatu diren akatsak zuzentzeko egin behar diren katastro aldaketaren proposamena onestea. Katastroko aldaketa honek udal lur-zatiak diren 15. poligonoko 1. eta 129 lur-zatiei eta poligono horren 2. lur-zatiari ukitzen die.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Aberastasunaren Zerbitzura

- La titularidad de la parcela 1 del polígono 15 aparece como comunal cuando debería estar a nombre del Ayuntamiento por ser bien patrimonial.

- La titularidad de la parcela 129 del polígono 15 es correcta, a nombre del Ayuntamiento, pero dicha parcela junto con la 1 anterior deberían formar una sola parcela según descripción registral.

- Las delimitaciones catastrales actuales no se corresponden con las delimitaciones físicas existentes por lo que debe plantearse una rectificación de dichos límites catastrales que afectarían a estas parcelas y a la parcela colindante 2 del mismo polígono 15.

Además de lo anterior, indica que como la parcela 1 del polígono 15 consta con titularidad comunal debe solicitarse informe a la Sección de comunales del Gobierno de Navarra.

En informe de la citada Sección de Comunales de 19 de septiembre de 2016 manifiestan que por su parte no existe inconveniente alguno en que se proceda a la modificación catastral solicitada por el Ayuntamiento.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 25.3 de la Ley Foral 12/2006 Del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra,

SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación catastral propuesta correspondiente a las parcelas municipales 1 y 129 del polígono 15 y a la parcela privada 2 del mismo polígono, para rectificar los errores señalados en el informe de 22 de agosto de 2016, emitido por la empresa Catastro-Estudio 5 s.l.

2) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra a los

bidaltzea behar diren ondorioetarako.

efectos oportunos.

7.- NAFARROAKO GOBERNUAREN TETRA IRRATIAREN TEKNOLOGIA DIGITALA DUEN SAREA ERABILTZEKO HITZARMENA ONESTEA.

7.- APROBACIÓN CONVENIO PARA LA UTILIZACIÓN DE LA RED DE TECNOLOGIA DIGITAL DE RADIO TETRA DEL GOBIERNO DE NAVARRA.

Jose A. Oyarzabal zinegotziak eta Idazkariak espedienteaz azaldu dute eta, segidan, aho batez, honako erabakia hartu dute:

El concejal José A. Oyarzabal y la Secretaria explican el expediente y, seguidamente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo.

Ikusirik, Nafarroako Gobernuaren Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta BERAKO Udalak sinatu behar duten Hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren Trunking Irrati Digitalaren Sarean (RRTF), TETRA digital teknologia duen horretan, Udal honetako albienteak integratzekoa.

Visto el Convenio de colaboración a suscribir entre el Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra y el Ayuntamiento de BERA, relativo a la integración de los alguaciles de este Ayuntamiento en la Red de Radio Trunking Digital (RRTF) de tecnología digital TETRA del Gobierno de Navarra.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Nafarroako Gobernuaren Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta BERAKO Udalak sinatzeko Hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren Trunking Irrati Digitalaren Sarean (RRTF), TETRA digital teknologiarenean, Udal honetako albienteak integratzekoa onestea.

1) Aprobar el Convenio de colaboración a suscribir entre el Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra y el Ayuntamiento de BERA, relativo a la integración de los alguaciles de este Ayuntamiento en la Red de Radio Trunking Digital (RRTF) de tecnología digital TETRA del Gobierno de Navarra.

2) Aipatu Hitzarmena koordinatu eta interpretatzeko batzorde mistoan Jose Martin Leiza Larralde, udal albientea, Berako Udal ordezkari izendatzea.

2) Designar a José Martín Leiza Larralde, alguacil municipal, como representante del Ayuntamiento de Bera en la comisión mixta de coordinación e interpretación del Convenio antedicho.

3) Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 41.12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu hitzarmena Josu Iratzoki Agirre Alkateak, edo legalki ordezkatzeko duenak, sinatuko duela adieraztea.

3) Señalar que, de conformidad con el artículo 41.12. del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el Alcalde Josu Iratzoki Agirre o quien legalmente le sustituya será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

4) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari bidaltzea behar diren ondorioetarako.

4) Remitir el presente Acuerdo al Departamento de Presidencia, Administraciones Públicas e Interior del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

8.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

8.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: B20/2016tik B26/2016ra.

1) Bandos: del B20/2016 al B26/2016.

2) Ebazpenak: 2016ko irailaren 8ko 168. ebazpenetik 2016ko urriaren 14ko 204.era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 168 de 8 de septiembre de 2016 a la nº 204 de 14 de octubre de 2016.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hauek tratatu dituzte:

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:

9.- BERA KO UDAL PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO ASMOA BERTAN BEHERA UZTEA.

9.- DESISTIMIENTO DE LA ELABORACIÓN DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL.

Alkateak eta idazkariak gaia azaldu dute eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

El Alcalde y la Secretaria explican el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

2014ko abenduaren 9an Berako Udalak erabaki hau hartu zuen:

Con fecha 9 de diciembre de 2014 el Ayuntamiento de Bera adoptó el siguiente acuerdo:

“Aipatu den 145/2002 Foru Dekretuan bertan adierazitako baldintzetan, Udal honek Udal Plan Orokorraren errebisioa egiteko asmoa duela Nafarroako Gobernuari adieraztea.”

“Manifestar al Gobierno de Navarra la intención de este Ayuntamiento de revisar el Plan General Municipal, con sujeción a las condiciones establecidas en el citado Decreto Foral 145/2002.”

2016ko urtarrilaren 14an eta martxoaren 16an eginiko osoko bilkuretan Berako Udalak herriko udal Plan Orokorra egiteko Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administraziozko Departamentuarekin sinatu behar

En los Plenos celebrados el 14 de enero y 16 de marzo de 2016 el Ayuntamiento de Bera acordó aprobar el texto del convenio de colaboración a suscribir con el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para la elaboración del

den lankidetzaz hitzarmenaren testua onestea erabaki zuen.

Kontuan hartuz, Udalak izapidean zuen 2. Sektoreko (S2) Udal planaren aldaketa dagoeneko Nafarroako Gobernuak onetsi duela.

Kontuan hartuz, 12. Sektoreko (S12) Udal planaren aldaketa Nafarroako Gobernuak behin betiko onespena emateko fasean dagoela.

Izanik, 2 sektore hauetan eraikitzeke dauden aurreikusitako Udal honen arabera nahiko direla herria garatzeko hurrengo urteetan.

Izanik, orain Bidasoa ibaian bota dituzten 2 presen ondorioz herrian uholdeak izateko arriskua aldatuko dela, beraz, planeamendua errebisatu baino lehen uholdeen parametro berriak izatea komeniko litzaiteke.

ERABAKI DUTE:

1) Udal Plan Orokorraren berrikuspenera egiteko asmoa bertan behean uztea, momentuz.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari igortzea behar diren ondorioetarako.

10.- AKORDIOA GURE TXOKOA ELKARTEAREKIN HITZARMENA 2 URTEZ PRORROGATZEKO.

Alkateak gaia azaldu du.

Idazkariak erran du gaia gai zerrendatik kanpo sartzen denez ezin izan du aztertu beraz, ezin duela horri buruz txostenik eman.

Plan General Municipal de Bera.

Teniendo en cuenta que la modificación del Sector 2 (S2) del Plan General Municipal ha sido aprobada recientemente por el Gobierno de Navarra.

Teniendo en cuenta que la modificación del Sector 12 (S12) se encuentra en fase de aprobación definitiva por el Gobierno de Navarra.

Siendo que las previsiones de construcción de estos dos sectores se estiman suficientes para el desarrollo del municipio en bastantes años.

Siendo que como consecuencia del derribo de dos presas en el Bidasoa modificará el riesgo de inundabilidad del municipio por lo que sería conveniente contar con los nuevos parámetros de inundabilidad antes de la revisión del planeamiento.

SE ACUERDA:

1) Por el momento, renunciar a la intención de revisar el Plan General Municipal.

2) Remitir este acuerdo al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

10.- AMPLIACIÓN PLAZO CESIÓN DE USO DEL CAMPO DE FUTBOL A GURE TXOKOA.

El Alcalde explica el asunto.

La Secretaria manifiesta que como el asunto se ha incluido fuera del orden del día no ha podido estudiarlo por lo que no puede informar

Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik futbol zelaiko obrak izan duten bilakaera, beharra ikusten da ingurua behar bezala txukuntzeko inbertsio gehiago egitea. Matzadako kirol guneak futbolaz gain bertze erabilerak izatea nahi dugu eta horretarako eta egindako lanari bukaera txukuna emateko, Gure txokoarekin egindako Ondareko ondasuna den Matzada futbol zelaiaren erabilerara doanik lagatzea 2 urtez luzatzeko konpromezua hartzen du Udalak, beraz 14 urtez mantenduko da guttienez doako erabileraren lagapen hau.

11.- EMANDAKO EUSKADI LITERATURA SARIARENGATIK FERNANDO MIKELARENA PEÑARI ZORIONTZA.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak 2016ko Euskadi Literatura sarian, gaztelaniazko saiakeran, beratarra den Fernando Mikelarenaren ‘Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936’ saritu du.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) Euskadi Literatura Saria, gaztelaniazko saiakeran, jasotzeagatik FERNANDO MIKELARENA PEÑA zoriondu eta Memoria historikoaren berreskurapenean egiten ari den lana eskertu eta animatzea horretan segitzeko.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

al respecto.

Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto el desarrollo de las obras del campo de fútbol se ve la necesidad de hacer mayor inversión para adecuar los alrededores como es debido. Se estima que el espacio deportivo de Matzada debe de tener otros usos además del fútbol por lo cual y para finalizar adecuadamente las obras realizadas, el Ayuntamiento adopta el compromiso de ampliar 2 años la cesión gratuita del uso del bien patrimonial campo de fútbol Matzada realizada al Gure Txokoa, por lo que la citada cesión gratuita de uso se mantendrá durante 14 años.

11.- FELICITACIÓN A FERNANDO MIKELARENA PEÑA POR EL PREMIO EUSKADI DE LITERATURA.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en los Premios Literarios Euskadi 2016 ha premiado, en la modalidad de ensayo en castellano, la obra “Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936” del beratarra Fernando Mikelarena.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Felicitar a FERNANDO MIKELARENA PEÑA por el Premio Literario Euskadi recibido, en la modalidad de ensayo en castellano, así como agradecerle el trabajo que está haciendo en la recuperación de la Memoria histórica y animarle a que siga en ello.

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:00etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:00 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Irtzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta